

Beste urte batez Mondragon Unibertsitatea Bizitza Zientifikoan Topaketan partaide

2015/10/20

Eureka Zientzia Museoak Bizitza Zientifikoan 5. Topaketa antolatu du datorren urriaren 26rako, DBH 4ko eta Batxilergoko ikasleentzat, zientziara eta ikerketara egiazki hurbiltzea sustatzeko. Horretarako, zientzia, teknologia eta ikerketari lotutako lanak egin dituzten hainbat profesional izango dira bertan. Topaketan Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Gurutze Arruabarrena eta Egoitz Arruti ikertzaileek parte hartuko dute, eta "Bizitza zientifikoa" eta "Telekomunikazioak, mundua konektatuta dago" izango dute mintzagai, hurrenez hurren.

